

Ezarian > Kartografia



Mapa berriak baserri izenak, bide zaharrak, bost metroko sestra kurbak eta herri bakoitzean dauden zerbitzuak agertzen ditu. ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA

Aralarren mapa berria argitaratu du Aranzadik, toponimia eta kultur ondare osatuarekin; Euskal Herriko mendialdea hobeto ezagutzeko abian jarri duen Saltus Vasconum bildumaren lehen mapa da atera berri duena.

«Aralar aurkitzeko mapa»

Jon Ordoñez Donostia

Txindoki edo Larrunari? «Hori garbi dago. Txindoki garai batean Amezketatik begiratu ta puntaren ipar-ekialdean dagoen magalari esaten zioten amezketarrek. Tontorra Larrunari da berez, eta Txindoki aipatzekotan Txindokiko punta hobetsi behar da». Horrelako zalantzak argitzeko eta galtzar den toponimia gorde eta berreskuratzeko, Aranzadi Zientzi Elkarteak Aralarren mapa berria atera du, eta dagoeneko salgai dago, zortzi euroren truke, Euskal Herriko saltokietan. Helburuak atzo aurkeztu zituzten Imanol Goikoetxea eta Rafa Zubiria Aranzadiko kideek Donostian. Saltus Vasconum bildumaren lehen mapa da Aralarkoa, eta datozen urteetan Euskal Herriko mendialdeko mapa berriekin osatu nahi dute bilduma. «Mendian daukagun ondarea zabaldu nahi dugu, eta toponimiarekin batera, monumentu megalitikoak, bidezidor homologatuak eta inguruko herrietako zerbitzuak jaso, mapak erabilera praktikoa izan dezan», azaldu zuen Goikoetxeak, bildumaren zuzendariak.

Aranzadiren kartografia tradi-

zioa luzea izan da sortu zenetik igaro diren 50 urte baino gehiagotan. Zientzia elkarteko kideek hasieratik ekin zioten zeuden mapak eguneratzeari, eta atzo aurkeztutakoa dajardun horretan azkena. «Aralar klasiko bat da Aranzadiren kartografian, eta hor hasi dugu Saltus Vasconum bilduma.



Mendian daukagun ondarea zabaldu nahi dugu, erabilera praktikoa bat emateaz gain»

IMANOL GOIKOETXEA
Saltus Vasconum bildumaren zuzendaria

Aralar aurkitzeko mapa da», gaineratu zuen Goikoetxeak. Aralarreko koloreetako mapak agortuta zeudela eta, aspalditik zuten asmoa Aranzadin mapa berriak egiteko, eta uda aurretik eman zioten egitasmoari bultzada. «Gipuzkoako Aldundiak bere mapak argitaratu ditu, baina Gipuzkoakoak dira soilik, Nafarroako Gobernuak Nafarroakoak soilik ateratzen dituen moduan. Hori ondo dago, baina guk, muga administratibok alde batera utzita, muga geografikoetan oinarrituz egin dugu.



Rafa Zubiria eta Imanol Goikoetxea Aranzadikoak, atzo, Donostian egin zuten aurkezpenean. ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA

Euskal Herrian mendiak ez dira muga, ibaiak baizik».

Aralarko mapa berriak hainbat berritasun ekarri ditu, eta horietan nabarmenenak bi dira. Batek, sestra kurbak bost metroka sailkatzea, horrela, topografia zehaztasun handia emanez. Bestetik, Datum ETRS89 kartografia sistema erabili dute; Aranzadiren esanetan, laster ezarriko da sistema hori European, eta «geroz eta gehiago erabiltzen diren GPS tresnak baliatzeko ezin hobea

da». Hain zuzen, mapa Interneten jarri eta diru kopuru «sinboliko» baten truke hartzeko aukera nola eman ari dira aztertzen orain, jpg formatuan, GPSetan erabili ahal izateko.

Ehundaka urteko toponimia

Atzoko aurkezpenean Aranzadiko kideek adierazi zuten, Aralarren eta Euskal Herri osoan aurki daitezkeen hainbat toponimok 500 urte dituzte gutxienez. «Orain dela ehundaka eta ehundaka ur-

teko toponimoak oraindik ere erabiltzen direla pentsatzea zurrargarria da niretzat», azaldu zuen Goikoetxeak. Toponimia hori guztia jasotzeko kolaboratzaile anonimoen laguntza izan du Aranzadik, eta lan sozial eta militante hori eskertu zuen Aranzadiko kideak atzoko aurkezpenean, batez ere toponimia hori orain galtzen ari dela ikusirik. Gainera, mapa berriaren azalean ekarpenak egiteko helbide elektronikoa bat gaineratu dute.